

ZAINDU GAIZUZ

(Ibamolako ermitan)

Maite-aizeak gaitu ona arnastu,
arnasgi eder zaran, Ama, errengana.
Guzur-bidez daukagu mundu biurra,
eta larri igesean gatoz Zugana;
Zuregan ez daukagu kizkur-lainorik,
Zu bai zaitugu argi-izpi gurena.

Izugarri loj jaku ludiko atsa,
gizarteko biziaz gu gala-gala;
nazka jakuz gizonak, uskeri-zale,
ar gure biotz-miñak, Izar garbala,
gaurkoz beiñik-beiñean ulerterazo
dausku bizi-joranen utsal-utsala.

Ixil ontan sakustaz ederrik oso,
zu ikusiz jat arrotzen barne guria,
giza-leize sakona dardar jar jarten
aizeak jota dauan adarño oria:
argi eizu Zuk, Ama, euskotar lurra,
jausirik daukagun gure aberria.

Leenago eta orain, leiatsu datozi
dirdai dagon zure egoitz ontara pozik;
ba-dautsu lilluratan inguru oniek
areitz eta arte berdez txit apaindurik
gozatu Zuk irripar audi zábaiez
eusklaldun sukaldeak, poza emonik.

Euri emonkor bedi zure grazia,
lore, bertso ta biotz, zeure dituzu;
Araba, Naparru ta Bizkaia oso,
Gipuzkoa eta beste irugaz batzu,
zeure dozun arnascgai Jainko-graziakaz
mintzo tederrez, guztiz beitez asetu.

Igotz